

## 70. ALDIZKARIA - 2014ko apirilaren 9a

### 2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### 2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK BAKAIKU

### **Aldaketa, Herriko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziaren tasa arautzen duen ordenantza fiskalean. Behin betiko onespena**

Hasierako onespena 2013ko 173. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 9an, eta jendaurrean egoteko epea iragan denez inork alegaziorik aurkeztu gabe, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, aldaketa behin betiko onetsi da Bakaikuko jabari publikoan interes orokorreko hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aprobetxamendu bereziaren tasa arautzen duen ordenantzaren testua, 2010eko 13. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen urtarrilaren 29an, nola eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaien arabera. Epai horiek eman dira France Telecom España, S.A.k eta Vodafone España, S.A.k jabari publikoan interes orokorreko hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aprobetxamendu bereziaren tasa arautzeko eta haren eduki bera izanik Nafarroako udalek onetsi duten ordenantzaren kontra paratutako errekursoetan. Hona hemen 3 eta 5. artikuluen idazketa berria:

“3. artikulua. Tasa honen subjektu pasiboak dira aitzineko atalean aipatu diren horniduren zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresak. Telefonía mugikorrekiko enpresak salbuetsita, subjektu pasiboak izanen dira bai hornidurak egiteko erabiltzen diren sareen titularrak badira, bai, sare horien titularrak izan gabe, sareak erabiltzeko, haietara iristeko edo elkar lotzeko eskubideen titularrak badira.

Horri dagokionez, zerbitzu horiek ustiatzen dituzten enpresen artean sartzen dira banaketarako eta merkaturatzeko enpresak.

5. artikulua. Kendu egin da, osorik baliogabetu baita.”

Bakaikun, 2014ko martxoaren 10ean.–Alkatea, Ion Tabar Cayuela.

Iragarkiaren kodea: L1404731